



Langai

1989KO

IRAILA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB 5

Batasun Nazionala Ponentzia

Idazkaritza Nazionalaren
Egokitzea

salto organizatibo
baten beharra

berri

Zbkia

ZA
BAI
TZEN

TXT 10006

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

LAB: SALTO ORGANIZATIBO BERRI BAT

SARRERA

- Lanaren helburuak
- Barne tratamendurako mekanika

1. 88-Ekaineko BERRESTRUKTURAKETAREN ANALISIA

- 1.1. Balorazio orokorra
- 1.2. Funtzionamendu aurrerakadak I.N.ean - areak, dinamika,...
- 1.3. Karentziak - hutsuneak - bilakatu gabeko planak...

2. ERDI EPERAKO KONPROMEZUAK

- 2.1. Euskalduntzea - eboluzio "mailakatu" eta planifikatua
- 2.2. 90eko Hauteskunde Sindikalak - prestaketa, baliabideak,...
- 2.3. 91-Udazkeneko kongresua
- 2.4. EGOKITZE ESTRUKTURALEN BEHARRA - indartzea, lehentasunak, planteamendu ambizioa,...

3. BERREGOKITZE PLANTEAMENDUA

- 3.1. Idazkaritza Nazionala: Karakterizazioa, dinamika,...
- 3.1.1. I.N.aren Permanentea - Karakterizazioa, dinamika, konposaketa,...
- 3.1.2. Idazkaritza Teknikoa - "integratua" - ez erabat
- 3.1.3. Akzio erreibindikatioa
- 3.1.4. Aparatuak
- 3.1.5. ALTERNATIBA ZEHATZA
- 3.2. Herrialdeko esturkturak
- 3.2.1. Herrialdeko permanenteak - hauteskunde sindikalen eta euskalduntzearen eraginak
- 3.2.2. Herrialdeko idazkaritza
- 3.3. Eskualde -herri esturkturak- duela gutxi onartutakoa berri, hauteskunde sindikalek lan dinamika eta arduratan sortzen duten eragina sartuz

4. ERREKURTSOAK- -INFRAESTRUKTURA TEKNIKOAK

- 4.1. Gaur egungo egoera - liberatu kopurua, funtzionalitateak,...
- 4.2. Euskalduntzearen eraginak - sustituzio, fase koiuntural, etab.ei buruzko ideia orokorra
- 4.3. Behar berriak - Aipatutako desafioei begira, planifikazio, kuantifikazioak
- 4.4. Ebaluazio ekonomikoa - perspektibak - posibilidadeak -irtenbideak

5. LIBERATUEN FUNTZIONAMENDUA

- 5.1. Gaur egungo egoera: Intzentibaziorik ezaren sintomak "Kunplimendu" sindromea - estankamendua Lan partzelazioa, "deskonfidantzak"
- 5.2. Liberatuaren karakterizazioa - kontzepzioa
- 5.3. Funtzionamendua - arauak
- 5.3.1. Liberatu organizatibo eta teknikoak
- 5.3.2. Liberatu "administratiboak":
 - Lanorduak
 - Estrukturarekiko harremana



Ponentzia: Idazkaritza Nazionalaren Egokitzea salto organizatibo berri baten beharra

SARRERA.

Militantzia guztiari analisi, eztabaida eta aportaziorako aurkezten diogun ponentzia edo lana horretarako ospatu zen Batasun Nazionalaren ondoren 88ko Ekainean sortutako Berrestrukturaren bilakabide sakonago bezala kokatzen da orokorki.

Funtzionamenduari buruz dugun esperientzia, aurrean ditugun hauteskunde sindikalak eta maila guztietan sindikatuak izan duen bilakabidea —politiko homojenitate eta prestaketa, kapazitate teknikoa eta interbentzio sindikal egokia— ENAM osoa sartzan den kontextu politiko eta sindikalari segurtasun eta efikaziaz aurre egiteko LABek behar duen SALTO ORGANIZATIBOA erraztu behar duen berregokitze baten faktore zentralak dira. Hau da, lanaren izpiritua barne hausnarketa bat eragitea da militantzia, ardura eta disziplina dinamika bat —indibiduala eta kolektiboa— bultzatzeko duela urteebete hasitako berrestrukturaketa baaten gainbegirada, positiboan egindako gainbegirada, baten aurrean gaude.

Lan honen analisi eta aportaziorako barne mekanikak zabala eta zehatza izan behar du, helburu hori lortzeko ahalegin organizatiboak ahuldu gabe. Gainera, enfoke ez da zuzendu behar eksklusiboki Idazkaritza Nazionalaren esparrura —hau izango bada ere Batasun Nazionalerako erabaki zehatza—, baizik eta baita ere aztertu egin behar dira gaur egungo herrialde, eskualde,... funtzionamendu eta estruktoretan eragingo dituzten ondorio edo transzendentziak; sintonia eta preokupazio bat egon behar du, sindikatuen dinamikan transzendenttea den gai bat benetako antidoto modura osatzen da bere herrialdeko eta nazional estruktura guztietan sindikatuen zuzendaritza organigramaren konposaketan suspikazioa, subjektibismo,... kanporatzeko.

LAABek arrisku burokratiko edo estankamenduak alde batetara utzi behar ditu, funtzio militanteen analisia benetako termometro bakarrak —beti ere Blokean ezarritako ardatz politikokoekiko, homojenitate ideologikoz— ardura, disziplina eta efikazia izango diren mekanika batetara guztiok baldintzatu eta behartuko gaituen benetako aportaziorako bideak irekiz. Hau da Urriko Batasun Nazionalarekin bukatuko den eztabaida eta irtenbide prozesu honetan gaintitu beharreko beste "listoi" bat.

Zentzu honetan, azpimarratu behar da lan-oinarria erabakiorra izango den Batasun Nazionalerako bidean aportazio prozesu bati loti lotua dagoela. Eskualdeko Idazkaritza, herrialdeko Konferentzia, afiliatu asanblada,... bidez, eztabaida kolektiboa aberastuko duen proposamen, inpresio,... kanalizatu

ahal izango ditu militantziak —beti ere idatziz—. Honengaitik, ondorengo egutegi orientatiboa ezartzen da:

- Lan-oinarria militantziari banatu – 89-9-4.
- Herri, eskualde, herrialde,... estruktoretan eztabaidatu – 4tik 23ra.
- Herrialdeko Konferentziak —89-9-23— Aportazioak zehaztu.
- 89-9-23tik 89-10-4ra estruktura guztietan aportazioak banatu, hauek baloratu eta lehenagoko iriztiak aberasteko Herrialdeko Konferentzia berriak egiteko posibilitatearekin.
- Batasun Nazionala – 89-10-7.

Eztabaida eta proposamenak estruktoretatik ibili beharko dute eksklusiboki, eskualdeko idazkaritza bakoitzak delegatu eta afiliatuen artean informazio, irizti,... markoak islatatu beharko baditu ere.

1. 88-EKAINEN BERRESTRUKTURAKETAREN ANALISTA

88-Ekainean sortutako berrestrukturaketaren emaitza edo balantze orokorra benetan positiboa da, edozein erakundetan funtzionamenduen lojistikaz birmoldatu edo gainbegiratu beharreko arazoak badaude ere. Emaitza positibo honetan, area desberdinetan asmatu edo ez asmatu eta gertatutako akats aislatuak akats, ebaluaketa honetan faktore garrantzitsutzat aipatu behar dira gure ustez erakundearen bilakabidean determinatzaileak izan diren aspektuak:

a) **Estrukturen ordenamendu eta operatibitatea.** Garbi mugatu dira sindikatuko estruktura desberdinetan partehartze, kompetentzia,... fluxuak, euskal prozesu iraultzailean LABen gai espezifikotan eta orokorki KASeri agindutakoetan —oraindik guztiz dimentsionatu gabe daudenak— militantzearen sartzetara transparenterako oinarri eta filosofia ezarri. Idazkaritza nazionalak, azpi estruktoretan dagoen pilaketa eta aportaziorako kapazitatean ematen den desberdintasun edo heterojenitateaz ohartuta ere burugogortasunez sartu du filosofia partizipatibo bat askotan oinarritzko militantziarentzako, edo baita ere herrialdeko estrukturentzako, "nekagarria" izan dena, uste dugu behartu egiten gaituela erakundearen mesedetarako ahalegin indibidual eta kolektiboak eragotzeko. I.N.ak motiritzatutako Herrialdeko Idazkaritza eta Eskualdeko Idazkaritza benetako eragina duten informazio, eztabaida eta aportaziorako organu modura osatzen dira bere dimentsio guztietan sindi-

katuaren "bizia"ren zabalketa xurgatu eta jugulatzuten Herrialdeko Permanente batzuen kaltetan.

Estrukturak beren benetako funtzionalitatean finkatze hau "Bilakabide Organizatiboa" lanean hasi eta onartutako izpirituan sakondu —efikazia hoberako eta mekanismo antzuak ez egiteko berrikuiketa egokiek— eta zabaldu egin behar du. Zentzu honetan, eztabaidaren ondoren, "Bilakabide Organizatiboa" zirkularra LAB bezala eta KAS Blokeko partaide bezala gure lanak betetzeko bultzatzen ari garen erakunde indartze planteamendu guztiaren zabalketa militante eta bilakabidearen gisa modura kokatzen da.

b) **Ardura espazioen karakterizazioa.** Berrestrukturaketak ardura indibidual eta kolektiboak zehaztu ditu sindikatuak. Militante bakoitzak, batez ere nazional edota herrialde mailan, lan eta betebeharrak batzatu ditu erakundearen organigramaren baitan, beti ere distorsio objektibo edo subjektiboak sortzen dituzten gainjarketa, doblaje,... alde batetara utziz. Honen helburua ez da funtzionalitate geldiak sortzea, baizik eta kuadro militanteen —batez ere liberatuak— arteko kolaborazio, kontraste,... eta laguntza bakoitzaren ardura espezifikoa onartu eta sakontzean oinarritua egongo den dinamika bat aurrera eramatea.

c) **Eztabaida bultzatzea.** I.N. dinamiko eta funtzionalago baten bidez Sindikatuak, (a) puntuan adierazitakoarekin batera, ezaugarriak dituzten militanteen eztabaida eta partizipazioa bultzatu du, kuadro militante eta, berriz esaten dugu, ezaugarriak dituzten aktuzioaren ezaugarri zen izaera informatzaile edo hartzaile hutsa hutsiz. Blokean bultzatu beharreko aportazio edo gaiak —bertak LABek ardura eta eragin maila handiagoak hartu ditu— eta Sindikatuarenak berarenak —erabaki markoak, sail sindikalak, Abenduak 14ren karakterizazioa, bilakabide organizatiboa, pentsio fondoak, funtzio publikoaren legea,...— ireki egin zaizkio militantziari ezaugarriak finkatu eta, bereziki, militantziari erakundearen bizian benetako "papera" emateko helburuan.

I.N.ak, zentzu honetan, bultzatu egin du intzertazio hau oinarritzeko lanak eginaz —kaltate eta sakonketan hobetu beharko bada ere—, erritmoak zehaztuz,... hori bai, garbi geratu behar da eztabaidarako estimulazio hau ezin dela karakterizatu, eksklusiboki, militantziaren fluxu partizipatibo eta aportatzailearen benetako bilakabidearen garrantzia modura: badaude desoreka organizatiboak, formatiboak, dedikaziozkoak,... filosofia oso batetan eragiten dutenak, bainan egiten ari den orientazio orokorreko bultzada baldintzatu behar ez dutenak.

d) **LABen aktibitate eta eragin handiagoa.** Lan edota ardura banaketa horrekin, erakundeak irabazi egin du area desberdinetan eta Langile Mugimenduan eta gizartearen orokorki bere isladapenean efikazia antolatua modura. Gutxiagatasun eta behar berriak nabari badira ere, Idazkaritza Nazionalaren balantzea benetan positiboa izan da, oinarri onak sortuz langile mugimendua LABen karakterizazio eta eragin handiago eta hobe bat sortzeko helburuan beste salto bat emateko.

1.2. Aurrerakada eta hutsuneak I.N.eko area desberdinetan

Funtzionamendu orokorraren aspektu adierazleak ezarri ondoren, beharrezkoa da zehazkiago aztertzea I.N., areak,...en aktibitatea, aurrerakadak finkatu, hutsuneak neutralizatu eta erakundeak eta kontextu politiko-sindikalak eskatzen dituen behar berriei alternatibak emateko helburuan.

Atzera begiratuaz eta zehaztasun gehiegitan sartu gabe —area bakoitzaren helburu programaren arauera zehazki aurre egin beharreko arazoa— atal honetan aipatu behar ditugu aztertu nahi dugun egoitzean ere bideak jartzen dituen funtzionamenduen erradiografia batetako arazorik garrantzitsuenak:

a) **Idazkaritza Nazionala.** I.N.ak —permanentea beratan organu ejekutibo eta dinamizatzaile huts modura zuelarik— gorputz eta aktibitate gehiago hartu du sindikatuaren zuzendaritza organu eta motore modura. Lan dinamika, arduaren ordenazioak, disziplinak,... I.N.aren lan eta funtzioen bilakabide orokorki positibo bat eragin dute, boluntarismo organizatua, ahalegin eta arriskuz ordezkatuz organizatuz guztitan egonik zuzendaritzaren markoan ere nabari ziren desekilibrio eta defizientzia formatiboak.

Zuzendaritza organuaren lan eta kompetentziari buruz eman den salto edo aurrerakada hau, beraz, garrantzitsua izan da: eztabaidak sortu eta bultzatzea (7 zirkular, 3 Langai,...), Idazkaritza Tekniko baten bilakaera eta formazioa oraindik sindikatuan influentzia kapazitate handiagoko fasean oraindik, akzio errebindikatiboaren koordinazio eta kontrol handiagoa, aparatu eta beren errealitatei buruzko sakonketa, LABen presentzia progresiboa —gero ikusiko dugun bezala nahikoa ez bada ere— komunikabideen aurrean eta, azkenik, inintziatiba propioei erantzun maila bat (Konstituzioaren urteurrena, Abenduak 14, Martxoak 3, Europar Parlamenturako kanpaina, Maiatzak 1,...)

Erreferentzia positibo hauek ez dira jartzen geure buruari loreak bota besterik ez egiteko, ohartzen bait gara aipatutako guztia positiboan biderkatzeko oraindik duaden karentzia eta akats guztiak. Hori bai, hutsune eta bete beharreko behar edo helburu berriei ere ez dute itsutu behar 88-Ekaineko berrestrukturaketatik hasita fruituak ematen ari den gaintze, proiektio eta lan bide baten kontsiderazioa.

Zentzu honetan, I.N.aren funtzionamenduan urtebeteko esperientziaren ondoren eta zuzendu edo berbidertzeko arazo zehatz modura, piskanaka nabaritu da Permanente eta I.N.aren arteko lan eta kompetentziak zuzen ez konbinatzea, zuzendaritza organuaren efikazia eta ajilitatearengan eragiten duten "pisutasun" arazoak bideratuz. Honi buruz, beharrezkoa ikusten dugu proiektio bikoitzean joango den begokitze bat:

— I.N.aren Permanentea finkatu eta zabaldu, ez bakarrik organu ejekutibo modura, baizik eta aktibitate eta aparatuak koordinatzeko, arazo puntualei erantzuteko, lan planak praktikan jartzeko, 10-4ri aipatzeko,... marko modura; Permanenteak, bada,

dinamika eta ajiltate gogor bat izango luke, bide horretan funtzionalitatea gutxitzea eramango luketen gaur egun I.N. organu "pisu" bilakatzen duten konpetentzia batzu gehituz.

– I.N. benetako zuzendaritza organu modura karkerizatzea, bertan bukatu eta zentifikatzen direlarik LABen eztabaida eta erabakiak, bai gure irtenbentzio bide espezifikorako eta bai 10-3ri aportatu eta organizatorako. Zentzu honetan I.N.aren dinamika —hutsune eta beharrei erantzuteko egingo diren zabalte batzuekin— herrialdeko idazkaritzenarekin lotua eta finkatua egongo da aportazioen fluxua zuzenki mantentzeko. Honela, H.I. eta E.I.k desahogatu egingo liriteke I.N.ari aportatzeko beren binkulazioan, sakonki eta efikazki sartuz militantziaren benetako partehartzea interesatzen duten gaietan, eta alde batera utziz alferrikako ahaleginak egitea beren irtenbidea I.N.aren Permanente batetatik kanalizatu behar duten gaiekin. I.N.aren Permanente honetan herrialdeko estrukturarari berari lotua eta eragina egongo da —gero adieraziko den bezala—.

Planteamendu honen ideia, beraz, efikazia eta ajiltatea irabaztea da erabakiak eztabaidatu eta hartzeko orduan I.N. eta estrukturen, orokorki, funtzio eta konpetentziak inolaz ere koartatu gabe.

b) **Koordinazio Politikoa.** Lehengo denborekin konparatuz hitzegiten badugu eta 88-Ekainean jarrizko helburuei eutsiz, funtzionamenduaren saldo orokorra positiboa da. Sindikatuak ESTRUKTURALKI parte hartu du blokeko gaietan, azkar edukiz bere eskutan bere aportazio mailan bilakatu ahal izateko informazio mailak. "Area" honetatik, honela kalifikatuta ez badago ere, orientazio edo oinarritzko eztabaidak —gloriak, materialeak,...— erraztu dira, garbia izan delarik Blokeko estruktura komunei LABen aportazioaren kalitate eta pisuari buruzko influentzia handiagoa.

Beraz, partizipazio eta aportazio politikoa LABen zabaldu egin da progresiboki, nolahi ere gelditzen direlarik egokitze honen ondoren sustantziarki bultzatu behar diren aspektu batzu:

– Gai politikoak aztertzeke metodo edota mekanika hobetu, militantzia eta estrukturen —herri-ekonomikoki I.N.eraino— aportazioak finkatuz. Gaur egungo errealitateak, aipatutako erreferentzia orokorrak erreferentzia, ikusten uzten du eskualde, herrialde edo nazional bakoitzeko militante zehatz edo erreferentzialen gehiegizko aportazioa, eta honek devaluatu egiten ditu edo devaluatu ditzake eztabaida eta erabaki markoak ez badugu lortzen militantziak militante bakoitzaren posibilitateen arteko "diferentzialitate" zentzu bat edo konplexuak kentzeko formulak bultzatzea.

– K. Lokaletan LABeko militantziaren presentzia eta partizipazioa lortzea —estruktura propioei lotua, noski—. Aspektu honetan organizazioak, salbuespenak ezik, ez du jakin zehaztasunez egoten estruktura komun honetarako espezifikatutako funtzioen arauerako organu horretatik ateratzen diren arduratan aportatu eta konprometitzen.

Bi arazoetarako eta, orokorki, bultzatu beharreko bilakabide organizatibo batetarako —LAB bezalako erakunde batentzako benetako "talon de aquiles" anahitaezkoa da sindikatuaren organigraman indartzea eta zuzenki kokatzea —gero zehaztuko dugu— "herrialdeko organizazio arduradunak".

Bestalde, eta "area" honi buruz, azpimarratu behar da 10-4 eta 10-3 bera indartzeko Blokearen erabakiak aipatutako estuktura komunetarako eta sindikaturako berareko dedikazio konbinatua behartuko dutela —gaur egungoa baino handiagoa—; beeraz, blokeko estuktura komunetako lanaren dinamikaren bilakaerak ere, dagokien Zuzendaritza politiko delegatu funtzioak betez, eragina izango du Permanente, I.N. eta erakunde osoak zuzendaritzari aportatzeko lan horretan inplikazio handiagoa izatean.

c) **Prentsa.** Aspektu teknikoan emandako pausak pausu —prentsa errekorreak pasatzea, Fax,...—, gai koiuntural ekonomiko-sindikalei, linea iritziei,... aurre egiteko komunikabideetan dugun presentzia ez dago sindikatuaren itxura, proiektio eta posizio publikoa aztertu eta alimentatuko duen aparatu batetan oinarriturik. Nahikoa ez den "pausoto" bat eman da. Honen motibazioa aparatua bera lan jarraitu eta zehatz bat merezi duten dedikazio graduak dituen ardura modura gutxiatea izan da, 88-Ekainetik hone behar bezala engokatu ez den arazoa. Zentzu honetan, garbi geratzen da prentsa ardura, gaur egungo sindikatuaren tesitura, nazional mailan bete funtzio batzuekin konpatiblea bada ere, dedikazio espazio handiago bat bete behar duela eta benetan finkatua eta etorkizun perspektibadun aparatu bat sortzea jo behara duela.

Beraz, berregokitze honetan eta nahitaez proiektio publiko handiago bat hartu behar duen sindikatu baten perspektiban begirada jarriz —komunikabideek ezartzen dizkiguten oztopoak eta ENAMen aurkako paktu politikoen bide berdinean LABen aurkako CCOO-UGT-ELA paktu sindikal simila bat L.M.ra proiektatzea gaindituz—, LABek prentsa aparatu dinamiko eta idazkaritza Nazionalako gainontzeko area eta ardurekiko eraginkorra den aparatua osatu behar du. Horretarako lan mekanismoak, medioekiko harremanak,... sustantziarki aldatu beharko dira.

d) **Harreman instituzionalak.** Urtebeteko esperientziak adierazten digu ez ditugula asmatu sindikatuaren gaur egungo funtzionalitate eta beharrak. Erakundeak mantentzen dituen harreman instituzional formal maila txikitik abiatuz —CRL "atipiko" eta probisionalki eta noizean behineko harremanak—, beharrezkoa da ardura hori leku egoki batetan jartzea eta ekonomiko-sindikal arloan jarraipen instituzional bat egiteko lanari garrantzi behiago ematea, honek kontakto instituzionalen bilakaera bat eragiten bait du, eta honek I.N.aren eta erakundearen lanean duen eraginak gure interbentzioaren aspektu garrantzitsuak gogortasun handiagoz aztertzea suposatuko bait du.

Bestalde, harreman instituzional estukturalak, edo hobe esan, parte har dezakegun ordezkartza

markoak, akzio errebindikatiborako areatik asumitu behar dira bere maila desberdinetan. Bide berdinean, harreman instituzionalak mantentzea behar duten beste arazo batzuk —patrimonio sindikala, dirulaguntzak, formazioa,...— dagokion area edo arduraren izan-gode dute beren protagonismo praktikoa.

Azken batetan, ezin dugu mantendu gaur egungo arduraren eta honetan behintzat erakundearen interes-beharretarako eterea eta inefikaza bait da. Hori bai, gero zehaztuko dugun bezala, honek ez du suposatzen harreman hauei uko egitea, baizik eta alde-rantziz, "harreman instituzional"en funtzioak aparatu desberdinetan dibertsifikatzea eta jarraipen institu-zionalean ahalegin handiago eta jarraitu bat.

e) **Idazkaritza teknikoak.** Berrestrukturaketaren ezaugarri zen funtsezko zutabeetariko bat zen Idazkaritza Teknikoa mundu ekonomiko-sindikalean sindikatuko militantziaren ezagutza mailak eta mezua aberastuko zuten lan formatibo, dossier, ikerketa,... sakonki eta zehazki bilakatzeko instrumentu modura eratu eta orientatzea.

Urte honetan, arduradunaren gaisotasuna zela eta denbora tarte garrantzitsu bat tartean izanik, idazkaritza teknikoak baieztatu egin du bere garrantzi eta beharra sindikatuko organigraman. Dinamika nahiko erregulizatudun lan taldeak sortzea, aparatu teknikoak sartzera, oraindik nahikoa ez bada ere, erakundearen aportazio orokorreko lanetan eta posibilitate tekniko-profesional egokidun beste militante batzuen partehartzea bere lehenengo emaitzak ematen ari da, eta hauen kantitate eta efikazia mailako dimentsionamenduak laister gehitu beharko du. Komentario positibo honetan, aipatu "urgentziazko ikastaro sindikalak", liberatuentzako ekonomia ikastaroak —hauen lantze eta bilakabide ahalegina emaitzen arauera aztertzea interesgarria izango litzateke—, Pentsio Fondoak, erdi eperako plan ekonomikoa... bezalako materietan jasotako aportazioak aktibitate baten adierazle, honen progresioa, berriz esaten dugu, transzendentzia eta eragina izan behar du erakundearen.

l. Teknikoaren bi funtsezko helburuek —Formazioa eta ikerketa ekonomiko, juridiko,... gabinetean— batzorde honen ahaleginak bikoiztu eta sartzera behar hartzen gaitu, behar bada, sindikatuko kuadroen prestaketa handiago baten ondorioz edo, baita ere, kasu edo gatazkak gutxiagotu direlako, progresiboki gutxiagotu diren lann tekniko-asesore batzuen kalte-tan. Honekin, planteamendua sindikatuko errealtate guztiekin homoliga ez badaiteke ere, militante tekniko batzuzuzenki ez gutxierabiltzea ebitatu nahi da, bazez ere, denen mesederako.

f) **Diruzantza.** I.N. eta herrialdearekiko beste lan batzuekin konpatibilizatutako aparatu nazional bate-tan egindako lana benetan positiboa da, erakundearen barne diruzantza edo ekonomiaren proiektzio desberdin batetarako oinarriak jarritz.

Batzordearen ordenamendu orokorrak, bideak finkatzeak, LABek ez zuen radiografia ekonomiko nazional bat egitea eta behin betirako helburu batzuzuzen

tzek errealtateak eskatzen duen irtenbide baten alde jokatzera posible egiten digu orain: aparatu indartsu bat egitea militante bat eksklusiboki "diruzantza nazional"erako jarritz —gastu, sarrera, inbertsio, patrimonio, eskurazio, kontrol osoarekin— eta bere garrantziak mekanizazio administratibo larri batetara behar hartzen gaituen aurrekontu batzuz kontrolatzeko medio egokiak.

Beraz, barne ekonomiko area benetako sakontasunez berbideratzeko momentu batean gaude —inflexio puntua—, "historia" batekin hautsiz —behar bada honen eraginak ordaintzen ari gara—, bertan diruzantza nazionala garrantziz gutxietsia egon da funtzio hori beste lan batzuekin konpetigarri eginez, aparatuaren bilakabide egoki eta bere ondorioen kalteta.

g) **Propaganda.** Idazkaritza Nazionalako esparruan arduraren hau karakterizatzeak propagandaren lehenengo aurrerakada positibo bat egin du posible sindikatuan. Hobetu beharreko hutsune "tekniko" edo edukizkoak badaude ere, Iraultzen finkatu egin da —zirkularrak, Langai, Abenduak 14, Konstituzioa, Maiatzak 1, hauteskunde,... kanpainak— aparatuan emandako ahalegin eta saltoa adierazi dute.

Elementu negatibo modura, hauen plasmazioa epe motzera planteiatu behar da eta aipatu beharrekoak, ondorengoak:

— Aparatu tekniko eskuragarri bat behar dute —ez propioa—, gure propaganda aktibitatea ajilizatu-ko duena, epe luzera planifikatzea posibilitatuko di-guna eta egiten den lan iluntzen duten atzerapenak ebitatuko dituen.

— Iraultzena, dagoeneko finkatua dagoen maiztasunez gain, behin betirako karakterizazio bat hartu behar du propaganda sektorial batekin konpatibiliza-tzeko, sindikatuaren proiektiorako nahitaezkoak izan-ik, propagandako aparatu nazionalatik artikulatu be-har direnak.

— Onartutako karakterizaziotik indarrez kokatu propagandaren betebeharra eta fabrika eta lan zen-truetako marko espezifikoan LABek egin beharreko borroka ideolojikoak. Zirkularraren hausnarketan funtsezkoak dira estruktura guztietan duen proiektzio praktikoa —batez ere eskualdekoan eta sail sindika-lean bertan— hemen ikusten bait da estruktura asko-ren uzkeria lan zentruetan borroka ideolojiko-propa-ganda politiko sindikala egiteko. Ia erabat propagan-da edo aktibitate "nazionalaren" menpe egoten da, salbuespenak ezik, oinarriko estrukturan inintziati-ba eta dinamika propiorik egon gabe. LABen propa-ganda infrastrukturak nahiko medio ditu berbideratu beharreko errealtate honetatik sortzen den planteamenduari aurre egiteko.

h) **Nazioarteko harremanak.** Aparatu honetan ere sindikatua metodo eta perspektibaz lan egiten hasi da duela urtebete bertarako arduraren ekspresio bat eratu ondoren. Lanaren kanpora begirako emaitzak zehaztea, ebaluatzea, zaila da, kontaktoek, zenbait forotan sindikatuaren presentziak,... aparatu honen bilakabidean aurrerapauso ukagaitz bat suposatzen

badute ere. Aurreerakada hau ez da zuzenki finkatu erakunde nazioarteko arazoak estructuretan sarzteak, aztertzeak dituen zailtasunengaitik; aspektu hau Idazkaritza Nazional eta Herrialdeko Idazkaritza-tatik bertatik borrokatu behar da.

Honez gain, egindako lanari buruz gainjarritako bi aktibitatek engokeren osagarritasuna ikusten da. Alde batetik beste herri edo nazioetako erakunde sindikalekin LAB bezala edukitako harreman propioak eta, bestalde, ENAMen borrokarekiko elkartasun eta laguntza bidez finkatzeari lotutako aktibitateak —LABen bidez—. Bigarren maila hau gutxietsi edo bigarren mailan utzi gabe —Askapenaren inintziatiben bidez bilakatzeko sindikal harreman batzutan zorroztu behar du bere lan orientazioa:

– Gure proiektu politiko-ideolojikoarekiko kide diren erakundeekin nazioarteko harreman egonkor eta tinkoak. Garbi dago honetan eta enfrentamendu frontalaren ondorioz oso gutxi eta, behar bada, beren bilakabidean kontradikzioak izango direla.

– Euskadiko errealtateak, gure langile erakunde iraultzaile karakterizazioak,... gure borroka eta helburuen zabalketa bat posible egingo duten foroe-tan informazio, partizipazio, etab. ezko nazioarteko harremanak. Hemen, F.S.M. eta hau osatzen duten erakunde sindikalekiko gure ahalegina erabat planifikatu eta bilakatu behar da, zenbait koste ekonomiko suposatzen badizkigu ere.

Gaur egun maila guztietako sindikatuko militantiak liburu, material,... bilketarako kanpainen arauera jasotzen ditu "nazioarteko harremanak", "elkartasun internazionalista",... —planifikazio handiagor egiten jarraitu behar dena—, eta ez da estimulatzen ahalegin hauek LABek berak ireki edo bultzatzen dituen nazioarteko harremanekin duen barne lotura.

i) **Akzio erreibindikatioa.** Area sektorial bakoitzean duen errealtate eta funtzionamendu espezifikoetan gehiegi sartu gabe, akzio erreibindikatioko arearen erreflexio bikoitz eta analitibo bat aipatu behar da:

– Akzio erreibindikatioko nazional koordinazio sektoreak. Honi buruz balantzea sektore hauen finkatzea da —Irakaskuntza, Osakidetza, Administrazioa eta Industria—, kanpo proiektio handia duten aspektu sektorialetan sindikatuaren interbentzioaren kontrol eta eraren hobekuntza ukaezin batekin, lan taldeekin eta jarraipenarekin. Aktibitateen koordinazioa, gatazken aurrean gure erizpideak homojenezatzea, gure posizioak publikoki adieraztea lana eta kuadro militanteak badaudela adieraziz —protagonismo honen arauera sindikatuak kuadroak finkatzea posible eginaz— eta negoziazio kolektibo sektorialaren dimentsionamendu handiago bat izan dira generikoki ongi bilakatutako arazoak, maila desberdinekin bada ere.

Arduradun nazionalaren dinamizazioaren pean "ekipo" hauek heldu eta indartzeak ez du bakarrik eragin positiboa interbentzio sindikal puntualarengan, baizik eta baita ere sektore bakoitzean etorkizunari begira ikerketa espezifikoko, perspektiba sektoria-

lak,... aztertzeko posibilitatea ematen digu, sindikatuaren diskurtsoa analisi eta zentzu alternatibo gehiagor aberastuz; zentzu honetan beharrezkoa da Idazkaritza Teknikoaren komunikazio eta partizipazio handiago bat estructuretzea —ezarri bezala— lan enfoke honi begira, orain arte behar bezala bultzatu ez den arazoak.

Balantze honetan aipatu behar da ikusitako esperientziak "industrial" arean arduren dibertsifikazio bikoitz edo hirukoitz batetara behartzen duela teorikoki area honetan inplikaturako sektoreak zuzenki koordinatzeko ezintasunaren aurrean. Sindikalismoaren interbentzioaren nazional mailako erantzun sektorial eta horrekiko LABen erantzunaren garrantziak zabalketa honetara behartzen gaitu, honela efikazia eta erantzunean irabazteko. Honi gehitu behar diogu —aipaturako zabalketa horretarako argumentazio modura— beharrezkoa dela Arrantza, Kooperatibak, Garrantziak,... eta antzeko sektoreetan I.N.etik koordinatu eta motorizatutako interbentzio bat planifikatzea akzio erreibindikatioko territorialaren sinkronian.

– A. Erreibindikatioko sektorial eta territorial koordinazioa. Hemen balantzea erabat negatiboa da, proposaturako helburuak ez bait ziren zuzenak. Balantze motz baino zehatz honetan eragin duten faktoreak hauek dira.

1. "Koordinazio sektorial eta territorial" horretarako planteiatutako barne mekanika erabat desegokia izan da. Ezinezkoa da metodo eta edukian disparate diren interbentzio errealtateak ondorioak errentabilizatzeko perspektibaz konfiantza errentabilizatzeko bilerak operatibizatzea. Bileren eduki parametroak ez definitze horrek bakoitzaren interbentzio errealtatearen "deskargor" hutsak eta produktibitate orokor urriak eragiten ditu. Zentzu honetan aspektu orokorrak, enfoke orokorrak, bilakaera eta perspektiba azterketak, borroka elkarrerlazioatzeko gaur egungo edo etorkizuneko ondoriadun gatazka,... kokatu behar dira, beren analisi eta erantzun plasmazioa dagokion marko sektorial edo territoriallean duten kuestioak koordinatzeko marko horiek txikitzea galaraziz.

Aspektu hau berbideratzeko, eta Batasun Nazionalaren ondoren arduradunen beraien kompetentzia izango den bilakabide bat sakontasunez aztertu gabe, beharrezkoa da bi Koordinazio marko desberdin ezartzea —sektoriala eta territoriala— maiztasun gehiagoko kontraste dinamikekin —hilero— eta, batez ere, bilera era bakoitzean egin eta proiektatu beharreko helburuak zehaztuz.

2. Akats bat izan da akzio erreibindikatioko territorialeko ardura "herrialdeko koordinatzaile" edo beste aktibitate batzuekin konpatibilizatzea. Praktikak erakutsi digu ezinezkoa dela bi funtzio desberdin ardura fisiko berdin batetan zuzenki bilakatzeko, honek praktikan ezaugarri desberdindun bi interbentzio espazio (nazionala eta herrialdea) betetzera eramaten bait du. Honengaitik etorkizunerako planteamen duak bi lan desberdin definitu behar ditu:

– Herrialdeko Koordinatzaile edo Organizazio

Arduraduna. Permanente eta Herrialdeko Idazkaritza dinamizatze arduraduna, I.N.eko Permanentean presentziaduna koordinazio politikorako eta organu onen erabaki konpetentzietarako, eskualde eta herri esturturen finkatze eta bilakabidea bultzatzeko arduraduna, sindikatuaren zabalketa bultzatzeko arduraduna (hitzaldiak, eztabaidak,...) eta, eskualdeko koordinatzaileen bidez LABek K.Lokaletan betetzen duen papera jarraitzeko arduraduna.

— Herrialdeko akzio erreibindikatorako arduraduna. Sindikatuaren inteebentzioa homojeneizatu, gatazka garrantzitsuak jarraitu, herrialdeko esparruan negoziazio kolektiboa planifikatu eta parte hartu, eskualdeetan akzio erreibindikatorako arduradun edo taldeen formazio mekanismoak —dago-kion formazio aparatuekiko koordinazioarekin— finkatzeko arduraduna.

Azkenik, Akzio erreibindikatorako arduradun nazionalak protagonismo gehiago hartu behar du —funtzionamendu urte honetan behar bezala bilakatu ez dena ekonomiko-sindikala izaeradun arazo orokorrekiko datu eta erantzun sistematizazioan: langabezia, inflazioa, gobernu neurriak, ZUR edo ZIDArekiko jarraipena,...; honek eragina izan behar du parametro sozio-ekonomiko sail baten aurrean LA-Ben iritzi edo posizioa azkarrago eta egonkorkiagoko bilakatzeko orduan, hauetan LABek oraindik ez bait du egokitzen ongi artikulatutako interbentzio zorrotz bat —hori bai, gure mugak baloratuz— langile Mugimendu eta gizarte osoaren aurrean.

Area eta funtzionamenduaren laburpen analitiko hau bukatzeko —berregokitzerako geroko planteamenduaren oinarri—, azpimarratu behar da 88-Ekainean bultzatako esturturen nabari dugun hutsune oso garrantzitsu bat eta akzio erreibindikatoraren balorazioan aipatutakoan adierazi duguna. Nahitaezkoa da, lehen helburu bezala erakunde zabalketa izanik, eta, baita ere, hauteskunde sindikalak aurrean ditugula, esturturen baitan argi definitu eta karakterizatzea “herrialdeko organizazio arduraduna”, sindikatuaren zabalpenean eragin biderkatzaile bat sortzeko gai diren kuadro politikoak eta esturturen militanteak bilakatu eta sortzeko funtzio espezifikorekin. Azken urteotan —berrestrukturaketak ez du asko balio izan helburu horretarako—, eta salbuespenak ezik, ez dugu lortu LABen intrbentzio politiko-sindikalerako lanen bilakabidean eskualdeko esturturen indartsu (herrietara zabaltzen direnak) eta militanteak bultzatzea. Kapazitate eta posibilitatedun militante asko beere sektore, sail sindikal, etab.etan “babestu” edo “kokatzen” da, esturturen finkatzea alde batetara utziz. Faktore honek estankamendu organizatibo bat eragiten du eta, gainera, ENAMeko partaide denetik LABek bultzatzen duena bezalako proiektu sozio-politiko bat eramateko funtsezkoa den herramienta modura kokatzen diren esturturen bati ez dagozkien eta hauek engranajetan dituen zabalketa kuantitatibo bat sortzen du.

“Bilakabide organizatibo” lana erreferentziazat izanik, B.N. honek lau “organizazio arduradun”

hauek sortu behar ditu, hauek organizatibo indarretak hauteskunde sindikalei indarrez aurre egitea eta, noski, erakunde orokorki bilakatzeko balioko duen lan bat planifikatu beharko dutelarik.

2. ERDI EPERAKO KONPROMEZUAK

2.1. Euskalduntzea

LABeko kuadroak euskalduntzea eta sindikatuaren barne eta kanpo aktuzio marko eta maila guztietan komunikabide modura gure hizkuntza benetan sartzea planifikazio mailakatu eta zorrotz batez aurre egin beharreko desafio bat da. Autokritika modura, beharrezkoa da aipatzea erakunde eta militantziaren baitan euskararen teilakapenerako prozesu praktikoko baten inguruan sentsibilitatea galtzea. Teoria erraza, erreibindikaketa programatikoa ez da isladatu konportamendu praktikoko batetan LANetia —behar bada orokorki ENAMeko erakunde guztietan—, nahikoa jaitsi da “guardia” helburu, erritmo,... gabeko inertzia batetan geratuz; “beste lehenetsun batzu” modura gelditzen joan da iraultzenetan eta bilera, Delegatu Asanblada, Batasun Nazional, etab.etan ia sinbolikoki adieraziz.

Honela bada, sindikatuan eta, bereziki, nazional, herrialde eta eskualdeko zuzendaritza esturturetan egoera kezagarria da, indututuki egiten dugun aktibitate guztietan eragiten duelarik.

Kritika edo errealtate eskematiko baino zehatz hau erabat berbideratua izan behar du, euskara, instituzional mailatik eraso gogorreko fase batetan, kontzientzia nazionalak eraginda bastiorik esangarriena hizuntzan duen euskal proiektu politikoaren zutabeetarikoa bat bait da. LABeko militantziak —gure postulatuen politikoaren bidean benetako abanguardia izan behar duen bloke politiko baten partaide— bere bilakabide formatiboa, bere militantzia espezifikoa nahitaezko euskalduntze batekin konbinatu behar du.

Horretarako, Bloketik ezarritako bide berdinean, sindikatuak ardura zehatz bat ezarriko du I.N. eta herrialde mailan —Aholkularitza— erakundearen aktibitate eta funtzionamendu parametro guztietan berreuskalduntze prozesu bat proiektatu, planifikatu eta kontrolatzera zuzendua.

Honek, praktikan, militantzia eta esturturei ahalgintza gehitu bat suposatuko die, ondorengoan oinarritutako kuadroen euskalduntze planifikazio baten baitan “FLEXIBILIZAZIO” bat eragingo bait du funtzionamendu eta arduratan:

- 3-4 ordutako ikastaroak Urritik Maiatzera.
- Ikastaro trinkoak udaran.

Zentzu honetako asmoa, beraz, bere eraginak nazional, herrialde eta eskualde mailan ongi enfokaturako planifikazio baten markoan egokitu beharreko mailakatutako programa batetan oinarrituko da.

Barne mailan euskara sartzeko formula eta disziplinak egokitzeko helburuan beste inintziatiba, aktibitateak,... lehen aipaturako arduraren planteamendu eta aportunazko sujetu izango dira eta B.N. honetan zehaztu beharko dira.

2.2. Hauteskunde sindikalak 90

Aurrean dugun berregokitzeak —bereziki herrialdeetan sortuko dituen eraginak eta hauek aztertzeko herrialdeko Konferentzietan beraietan garrantzia izango du— fundamentutat dute sindikatuko esturaturak prestatzea sindikatuaren etorkizunerako oso garrantzitsuak izango diren hauteskunde sindikal batzutarako operatibitate, efektibitate eta dinamika garantiarik gahienekin.

86ean LABek izan zuen aurrerakada indartu egin behar da hurrengo hauteskundeetan lan planifikatu baten bidez, honen funtsezko ardatza sindikatuaren interbentzioa hobetzeko orain "vuelta de tuerca" bat jasotzen duten 88-Ekainean hasitako berrestrukturaketaren ondoren esturatura batzuen indartzean oinarrituko delarik. Zentzu honetan, "organizazio arduradunen" lana eta akzio erreibindikatio territorial eta sektorialetik enfokatu edo planifikaturako lana oinarritzko elementuak dira hauteskunde enbidora test garrantzitsu bateetarako prestatutako indarrez aurkezteko.

Egokitze lan honetan ez dugu sakonki aztertuko "hauteskunde sindikal" eta hauen prestaketa edo planifikazio definituari buruzko zehaztasunak —90eko Otsaileko B.N.,ean aztertu beharreko arazoa—, baina berregokitze organizatiborako prozesu hau analisisan ken ezin daitekeen konpromezu batekin lotuko dugu. Berregokitze honen ondoren eta, batak bat herrialde eta eskualde mailan, hauteskunde horietarako inintziatiba eta planak aartikulatu beharko dira lan politiko-sindikal eta zabaltze organizatiborako baten bidez.

Beraz, aurkezten diren berregokitzeek beste "salto" bat eman nahi dute balorazioan adierazitako erreflexioaren ondoren 90eko udazkenera lan eta infraestruktura baldintza mesedegarrietan iristeko.

2.3. 91 Udazkeneko kongresua

Sindikatuaren konpromezuen barruan Kongresua aipatzea lehengo bide berdinean dago. Sindikatuak intentsitatez aurre egin behar dio bilakabide organizatibo, barne heldutasun, sedimentazio ideologiko,... bati, ENAMen aurrerakada politiko-ideologikoen eraginik LABi posible egingo diotenak hau beren perflilik sakonenean sartu gabe uzten ditugun eta, tratamendu "koiunturalista" batetan oinarriturik —arazoak etortzen zaizkigunean— "berrikutzen" ditugun arazo asko sakontasunez aztertzeko plataforma egoki modura kokatzea; arazo hauek interbentzio bideari, esturaturari, estatutoei,... eragiten die.

Gaur egun sindikatuak, konparatiboki hitzeginez aurrerakada izan baditu ere, ez du esturatura, funtzionamendu, kapazitate,... gorputza hartu LAB eta ENAM ek behar duen ezaugarriaren Kongresu bat asumitzeko. Beraz, ingurumingururik gabe eta ilusioz kokatu nahi dugu bere aipaturako oinarriak langile Mugimendu eta gizarte osoaren aurrean esperientzia, kapazitate eta indarrean aurrera egin behar duen militantzia eta esturatura baten esku dauden Kongresu bat. Erabat komunikabideen aurreko pantaila huts diren Kongresu formalen aurka gaude, ez bait da hori sindikatuak behar duena. Azken batetan, 88-Ekaineko bilakabide modura oraingo berregokitzea, denbora "ekuatorreko" hauteskunde test honekin, prestatu beharreko Kongresuaren antesala modura aurkezten dira.

Prestaketa honek ahalegin asko eskatuko ditu eta bere instrumentalizazio praktikoa 90eko udazkeneko hauteskundearen ondoren hasiko da.

3. BERREGOKITZE PLANTEAMENDUA

Aurreko ataletan adierazitako erreferentzia eta balorazioen ondoren, puntu honetan materializatzen ddugu berregokitzearen zehaztapena Idazkaritza Nazionalaren dinamika eta konposaketan. Era berean, induzitutako bere eraginetatik abiatuz, zenbait kontsiderazio orokor kokatzen ditugu behe esturaturei buruz, herrialde eta eskualdeko marko desberdinak izango bait dira sakontasun handiagoz definituko dutenak beraien berregokitzea.

3.1. Idazkaritza Nazional — karakterizazioa eta dinamika orokorra

I.N., lan berriak enkajatzeko eta desegoki bilakaturakoak sakonki lantzeko zabalketekin, SINDIKATUAREN INTERBENTZIO SINDIKAL ETA APORTAZIO POLITIKORAKO FUNTSEZKO ERABAKIAK EZTABAIDATU ETA ERABAKITZEKO ORGANU modura eratzen da. Organu hau, bere globalitatean, erakunde guztiaren motore da, gaur egun karakterizatutako lurralde eta interbentzio sektorialerako esturaturekiko, konbinazio sinkronizatuan. I.N.ak, eztabaida eta erabakirako marko autonomo bat bada ere, behe esturaturen —herrialde eta eskualde— aporazioak jasoko ditu, hauekiko funtzionamendu harreman armoniko bat ezarritik.

Bileren maiztasun egonkorra hiru astero izango da —ostiraletan—, aurrez ezagunak eta behe esturaturetan aztertuak izango diren eguneko aztergaiek; honetarako komenigarria da, gaur egungo bidean,

Permanentetik informazio, eztabaida eta aportazioa errazteko beharrezko lan-oinarriak eta elementuak artikulatzea.

I.N.ak garrantzi handiagoa hartuko du interbentzioko determinanteak diren aspektuen eztabaida eta erabaki organu modura, Permanententeruntz bideratuz erliebe berdinekoak izanik estruktura batek —permanenteak— aztertu behar dituen arazoak, honela Idazkaritza Nazionalaren aktuazioaren benetako funtzionalitate eta egikaria bere benetako neurrian desahogatu eta orekatuz. Hau da, lortu nahi dena da I.N.ak eztabaida eta aportaziorako gai transzendentetan zorrotzasun eta efikazi irabaztea, Permanentearengan utziaz izaera inediatista, ejekutibo, aparatu arazoak eta antzeko aspektuak, hau I.N.eta bideratzeak zuzendaritza Organuaren lehentasunezko funtzionalitatea kaltetzeraz iristen den pisutasun bat sortzen duen "boteila lepo" bat sortzen du (eta ondoriozko eraginez, oztopatu edo ezinezko egiten dira herrialde eta eskualdeen aportazio dinamikak).

Garbi geratzen da —eta honela adierazten dugu expreski— 10-3ko gai guztiak I.N.ean analisi eta eztabaidarako objektu izango direla, Permanentearen aldetiko kompetentzia xurgaketa desegokiak alde batetara utziz.

Lehen aldaketa honetatik, honel islada beste lurralde estruktura batzutarazabaltzen da gero generikoki agertuko dugun bezala antzeko proiektio bategan kokatutako beste berregokitzen batzuz ezarriko ditugu:

3.1.1. Idazkaritza Nazionalako Permanentea

Idazkaritza Nazionalaren organu exekutibo eta dinamizatzailea, gainera a paratuen eta beren aktibitateen koordinazio eta kontrol funtzioak, arazo inediatista sindikal eta politikoei erantzuteko funtzioak, Blokeko informazioa eta herrialdeetako errealitate organizatibo eta interbentziokoak elkarraldatu eta pasatzeko marko funtzioak, 10-4rako aportazio funtzioak hartuko ditu, herrialde bakoitzeko organizazio Arduradunen bidez puntualki militantzia informatuz.

Organu honetan egongo dira —bere konposaketan— helburu horretarako nazional mailan erakundearen lan eta izaeran oinarritzeko diren bi isurialde:

– Ezaugarri hauek dituen organu exekutibo baten funtzionamenduan funtsezko Aparatu eta aktibitate arduradunak: Prentsa, koordinazio politikoa, akzio erreibindikariorokorra, Idazkaritza Teknikoa, I.N.aren barne koordinazioa, jarraipen instituzionala, formazioa,...., alternatiba zehatzean isladatzen dugun lann banaketa eta konposaketa batekin.

– Herrialdeko organizazio arduradunak. Nazional exekutibo eta herrialdearen arteko "zubia" izango dira, Permanente Nazionalaren kompetentzia eta funtzioetan kide bat gehiago bezala parte hartuz.

Honez gain, O.A. Herrialdeko Permanente eta Idazkaritzaren dinamizatzailea izango da eta L.M. an eta KAS Blokearen funtzionalitatean kuantitatiboki eta kualitatiboki aurrera egiteko LABek behar duen

bilakabide organizatibo baten —estruturak finkatu eta zabaldu— planifikaziorako funtsezko pertsona. Era berean, O.A.k lan honekin batera eta elkarrerlazioaturik hauteskunde sindikalei aurre egiteko plan bat diseinatu beharko du herrialde bakoitzean, bilakabide organizatibo eta intrbentzio sindikalaren hobetzea —akzio erreibindikariorokorra eta formazioa— emaitza positibo bat lortzeko faktore determinanteak direla abiapuntutzat izanik.

Permanente nazionalak dinamika gogor eta azkar bat izango du —gutxienez asteroko bilera— mekanismo zuzenen bitartez —O.A.— orientazio edota erabakiak herrialdeetara kanalizatuz, transmisioa homojeneziatu eta errazteko aktak egitea mantenduko bada ere. Informazioa pasatzeko lan honetan O.A.ek, baita ere, Permanenteko informazioa planteiatu beharko die ez bakarrik herrialdeko estrukturi (Permanentea edo Idazkaritza), baizik eta baita ere, zeleritate eta metodoz, bakoitzaren herrialdeko I.N.eko gaitortzeko kideei.

Bestalde, Permanente Nazionalak Idazkaritza Nazionalako beste edozein kideren presentzia eskatu ahal izango du beharrezko deritzonean; arazo garrantzitsua informazioa zabaltzeko, iritziak eusteko eta orientazio edota erabaki posibleetan asmatzeko.

3.1.2. Akzio erreibindikariorokorra

Balorazioan nahikoa azaldu bezala, akzio erreibindikariorokorra area ez da mamitu koordinazio eta operatibitateari dagokionean eta, bereziki, ez da bulztatu LABek asumitu behar dituen interbentzio eta presentzia publikorako beharra.

Zentzu honetan kokatu behar dira, alternatibo gisara, berregokitzearen bidez definitutako lirateken ardura desberdinak —batzuz errepikapen hutsak dira—:

a) Akzio erreibindikariorokorra koordinazio orokorra—permanente nazionalen presentzia eta partizipazioz eta ondorengoan zentratutako lan batzuekin:

– Akzio erreibindikariorokorra LABen aktibitate sektorial eta territoriala ondorio, azterketa, baloraziotak koordinatu eta sintetizatu, hau da, sindikatuaren interbentzioarekin benetan harremana izan. Funtzio horretarako sektoreko arduradun nazionalerako harremanetarako marko desberdinak eta herrialdeko akzio erreibindikariorokorra arduradun batzuz horretan bakarrik arituko direnak artikulatu behar dira, gaur egungo metodoa aldatuz (gaur egungo lanak koordinazio politikorako ardurekin edo... bikoiztea ebitatuz).

Bileren maiztasuna hilabeterokoa izango da, "Koordinatzaile orokorra"ren aldetik gai eta helburuak zehazki prestatuz, hauek sektore edo herrialde bakoitzeko partikularitateen "deskargo" hutsak izatea ebitatuz eta, bestalde, NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZKO BIDE OROKORRETAN AURRERA EGITEKO, AIPATUTAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BALORAZIO OROKORRAK EGITEKO, PORTAERA SINDIKALAK AZTERTZEKO, GATAZKA ZEHATZEI ERANTZUTEKO AKTIBITATEAK KOORDINATZEKO, SINDIKATUAREN ERANTZUN

KAPAZITATEA AZTERTZEKO, balio izan dezaten; hau da, interbentzioaren aspektu orokorrak, ondorio sintetiko edo eztabaida edo tratamendurako aportazio modura I.N.eko Permanentera bideratu behar dutenak sindikatuaren estruktura guztietarako edota Idazkaritza Nazionalerako bertarako informazio edo analisi irekitze modura bideratu baino lehen.

– Sindikatuaren interbentzioan oraindik eman gabeko gai orokorre buruzko artxibo eta dokumentazio lan sistematizatua eta erantzun puntuala: langabezia, inflazioa, PIB, neurri sozialak,...; arduradun honek erantzun hauei erantzuteak behartzen duen protagonismoa asumituko du —prentsa, iritzi artikuloei, barne komentarioak,...—, aspektu orokoragoak aztertzen dituen Idazkaritza Tekniko batekin dokumetazio edo iritzia kontrastatzea beharrezko eta gomendagarria izanik. Era berean, Koordinatzaile politikoarekin eta jarraipen instituzionala aumitzen duen militantearekin batera lan egingo du hamabostean behin gai politiko, ekonomiko eta arauteegi juridiko-sindikalar buruz agertzen diren artikulo edo iritzi interesgarriekin banatuko den BARNE BOLETIN baten sorreran. Gaur egungo bozetoak balio dezake laiste batetan inintziatiba hau martxan jartzeko Propaganda areak baloratu beharreko maketa eta egite sistematika batekin.

– Momentu bakoitzean Sindikatuak jarritako helburuen parametroetan CES, CRL,... bezalako organuetan herrialdez gairako esparruetan —Vascongadas LAB ordezkatzeara. Hori bai, organu horietako edozein gai I.N.eko Permanentean aztertu beharrezkoa izango da eta, traszendentziaren arauera, Idazkaritza Nazionalen bertan.

– Herrialdeko akzio erreibindikaboko arduradunengan dinamizatu hauteskunde sindikaletako aspektu prestatzaile eta berezkoak: datuak eguneratzea, datuak sistematizatzeko metodoak prestatzea, hauteskunde arautegiaren difusio posiblea,...

a) Nazional koordinazioko sektore edo areatako arduradunak

Hemen planteamendua lehenengo lanaren behar eta esperientziaren arauera ardurak banatze bat egokitze konposaketa zabaltze batetan zehazten da. Akzio erreibindikaboko ardurak nazional hauen beharrentzako "estrukturaketa" erizpide funtsezkoa mantentzen da. Generikoki zehazteagaitik, I.N.ak onartua dago eta ez dugu zuzenketa beharrik ikusten, Irakaskuntza, Osakidetza eta Administrazioak ekipoak eratzin dituzte —sektorialak eta azpisektorialak— dinamika orokor, negozioziko kolektibo, ikerketak egin, sektore bakoitzaren arauerako alternatiba teoriak aztertze,...., herrialdeko estruktura bakoitzean helburu berdinerako herrialde mailako arduradun bat edukiko dutelarik. Interbentzio sektorialerako "ekipo" edo estruktura hauekako kide guztiak estruktura territorialetan parte hartu beharko dute, hauen konfigurazioa eskualde edo herri mailara zabaltzen ez delarik. Bestalde, "industrial" area bat konformatzen da —konposaketa zabaltzea eta ardurak banatzea planteatzen duguna—, honen "estruktura" koiunturala

izango delarik, edo behintzat ez maiztasun zehatzeko parametroz, eta lan zentru edo fabriketako kideek osatutako "ekipoen" arauera osatua, nazional mailako koordinaziora lotuak eta akzio erreibindikaboko lurralde arduradunekiko harreman edota, dagokionean, partehartze mailekin, interbentzio sindikalerako marko "estankoak" ez sortzearen.

Erizpide hauek mantenduz, berregokitze honek batik bat nahi duena da beharrezko koordinazio lanek erabat atomizatutako area "industrial" bat berkonposatzea nazional mailan eta, gainera, planifikazio eta sakontasunez aurre egitea sindikatuak "utzi" dituen edo nahikoa eragin ez duen koordinazio nazional sektoreei. Honekin, interbentzio efikazago bat, gizarte eta langile mugimendurako garrantzidun sektoreetan sindikatuaren jarrera publikoan interbentzioaren plasmazio handiago bat eta, baita ere, Arrantza, Langabetuak, Kooperatibak,... bezalako esparrutan sindikatuaren zabalkuntzari Idazkaritza Nazionaletik bultzada ematea —akzio erreibindikaboko herrialdeko arduradun bakoitzak definitu eta asumitu beharreko beste konpromezuekin— lortu nahi da.

Azken batetan, I.N.aren baitan akzio erreibindikabito nazionalen area ondorengo arduetan egongo litzateke eratu eta banatua:

– Irakaskuntza – dagoeneko erabakitako "estrukturaketa" eratan Ikastola, Eskola publikoa eta Unibertsitatea bilduko litzuzke.

– Osakidetza – Osasun Publiko eta Osasun Privatuz arduratuko litzateke.

– Administrazio – Administrazio Vascongado-Forala, Administrazio Lokala, Estatuko Administrazioa (Correos besteren artean) dinamizatu eta eragiteaz arduratuko litzateke.

– Koordinazio "industrial" – lehen aipatutako parametroetan, ondorengo sektoreetako interbentzio eta koordinazioa lantzeaz arduratuko litzateke: Integrala, Altzairu komuna, Aceriales, Esnekikoak, Renfe,... eta beren lan zentruak herrialde desberdinetan egonik "koordinazio nazional" hori behar duten beste posible batzu.

– Beste sektore batzuen koordinazioa – Hemen sartuko lirateke, aurrekoen "estrukturazio" metodo berdinarekin, banka eta Aurrezki Kutxa, Kooperatiba, Arrantza eta Langabezia sektoreak.

3.1.3. Aparatuak

Berregokitze honetan ez litzateke aldaketa sustantzialik emango, ondorengoei buruz ezik:

– Diruzantza dedikazio eksklusiboko ardurak eta beste lanekin erabat inkompatible modura definitu.

– Bere maila guztietan sindikatua euskalduntzeko prozesua planifikatu, kontrolatu eta dinamizatzeko ardurak espezifikatu bat eratu (militantzia, barne bizitza, textuak eta argitaralpenak,...). Nazional esparruko ardurak hau herrialdeko Idazkaritzen konposaketara trasladatuko da eta "aparatu" bilakatuko da estrukturalaketa, funtzionamendu eta inintziatiba moduei dagokienean.

Gainontzekoak, bai propagandak eta bai nazio-arteke harrëmanek beren presentzia mantentuko dute idazkaritza nazionalen, aurreko funtzionamenduaren balorazio apartaduan planteiatutako hutsune edo behar berriei aurre eginez.

3.1.4. Idazkaritza Teknikoa-formazioa

Sindikatu guztiarentzat area honek duen garrantziak eta funtzionamendu esperientziak erakusten digu giza INDARTZEAREN behar bat eta ardura zehatzen zatiketa bat operatibitate edota aktibitatea gehitzeko helburuan.

Zentzu honetan, proposatzen dugun berregokitze planteamenduetan zenbait kuadro teknikoren militantzia lan organizatibo edo barne lanetara xurgatzea suposatzen du —lehen aipatutako ardura zatiketa horretan— afiliatu edo gatazkekiko aholkularitza zuzenaren kaltetan. Idazkaritza nazionalen eta behe-ragoko esturkturatan saartzeko joera hau akzio erre-ebindikatiborako lurralde arduradunen bilakaera formatiboarekin batera aztertu behar da etorkizun batean. Momentu honetan uste dugu salto bat eman behar dela bide horretan esturktura guztietan aholkularitzaren eraginak zainduz —ondorioak baloratuz, ez dadila gerta positibo-negatibo balantzea sindikatuaren aurrerakada interesentzat kaltegarria izatea— A.E.ko lurralde arduradunek hartutako hel-durasunaren funtzioan.

Area honen forma, inintziatiba eta dinamikak aipatu gabe —ez da lan honen helburu zentrala eta lan hori gaur egun finkatutako oinarrien arauera nazional berriak programatu beharreko lana izango da—, bere ardura konposaketa honela geratuko litzateke:

— Idazkaritza Teknikoaren arduradun orokorra edo dinamizatzaile orokorra eta Formazio Batzorde Nazionalaren bilakaeraz espreski arduratua. Idazkaritza Nazionalen Permanentean parte hartuko luke eta bere funtsezko lanak izango lirateke: formazio batzordearen aparatu eta aktibitate finkatzea bultzatu, bai arlo politikoan eta bai sindikalean, eta Idazkaritza Teknikoko ekipo desberdinen jarraipen bat egin (juridikoa, ekonomikoa, ikerketa,...), talde ekonomiko baten ikerketa, balorazio,... dimentsionamendu handi-agoan espreski parte hartuz, bertan, era berean, beraren aktibitatea nazional mailan eta erakunde osoan gehitzeko militante arduradun bat egongo delarik.

— Idazkaritza Teknikoaren beraren markoan ezarritako lanetan area juridikoaren koordinazio arduraduna. Instituzio desberdinetako lege, arautegi, dekretu, naurri sozialen,... jarraipen instituzionala arduradun honek instrumentalizatuko du mekanika zorrotz batekin eta talde juridikoaren laguntzarekin, dedikazio eta jarraipen indizerik handiena arduradunarena izango bada ere. Arauteegi, eskubide,... bakoitza in-formatiboki esturktura guztietara pedagogikoki pasatzeko edo erantzun sindikal bat definituko duten eztabaidak artikulatzeko komentario edo balorazio batekin erantzun behar da erakundetik. Izaera sindikaleko gaiet buruzko materialeak Permanentente nazionalerako —bertako kide bat gehiago izango da— bilakatu

eta lantzeko arduraduna izango da eta, era berean, BARNE BOLETIN ekonomiko-politiko-sindikalaren kkonfigurazioa koordinatzeko arduraduna.

— Ekonomista taldeko kidea, honen funtsezko ardura izango delarik erakundearentzako egitea bai barne mailan eta, behar bada, kanpora begira LABEN posizio indartu eta zorrotz bat karakterizatuz, Plan Ekonomikoei buruzko ikerketak (Erdi Eperako Plan Ekonomikoa, PAI,...) eta izaera orokor edo "erregional" dun industrialak (ZID,...), EEERI buruzko informe sakonak eta jarraituak artikulatu (Laguntza Fondoak, FEDER,...) eta akta bakarrak sektore zehatzetan eta euskal ekonomia guztian izango duen eraginari buruzkoak, bere dedikazioaz I.Teknikoaren dimentsionamendua garantizatuz. I.T.ko arduradunaren eta talde ekonomizistaren laguntza izango du lan hauetarako eta I.T.ko markoan sor daitezkeen besteentzako, erakundera aportatzeko puntal garrantzitsu bilakatzuz. Lan hau, Idazkaritza Nazionalen erabateko eskubidezko partizipazioz, asesoria teknikoaren kaltetan izango da, etorkizuneko arduradunaren herrialdea eragina izanda ere, inolaz ere hutsa geldituko ez dena. Konbinazioa zaila izango da, baina hasera batetako planteamendua bi lanak aurrera eramatea da, honekin batera, herrialde eta eskualdeko akzio erreibindikatiboko arduradunak behartuz orain arte teknikoaren kompetentzia hutsa ziren aspektuetan eragin kota handiagoak hartzera, bere formazioa finkatzen denarekin batera. Enfoke hau sakondu egin behar da erabat elkarrerlacionaturik dagoen dinamika ebolutiboan.

3.1.5. Alternatiba zehatza

I.N., egindako desbroze partzialaren ondoren, honela geldituko litzateke:

IDAZKARITZA NAZIONALA:

Permanente nazionala eta ardurak:

- Idazkaritza Tekniko eta FORMAZIOaren arduradun dinamizatzailea:.....
- Area Juridiko-jarraipen instituzional-lan sindikalak egiteko-barne boletina osatzeko arduraduna: ...
- Koordinazio Politikorako arduraduna, 10-4en parte hartuz-analisi eta eztabaidarako lanak egin-eztabaidarako gidoiak ezarri:.....

— I.N.eko barne Koordinaziorako Arduraduna (aktak, eguneko aztergaiak,...) eta era berean gogorki finkatu beharreko Prentsa aparatu batetako arduraduna:

- Akzio erreibindikatibo orokorreko arduradun:.....
- Arabako organizazio arduraduna:
- Bizkaiako organizazio arduraduna:
- Gipuzkoako organizazio arduraduna:.....
- Nafarroako organizazio arduraduna:.....

Gainontzeko aparatu eta ardurak:

- Propaganda arduraduna:
- Diruzantza arduraduna:.....

- Nazioarteko harremanetarako arduraduna:.....
- Euskarako Aholkularitza Arduraduna:.....
- Irakaskuntza sektoreko akzio erreibindikatorako arduraduna:.....
- Osakidetza sektoreko akzio erreibindikatorako arduraduna:.....
- Administrazio sektoreko akzio erreibindikatorako arduraduna:.....
- "Industrial" areako akzio erreibindikatorako arduraduna:.....
- "Serbitzuak eta beste" sektoreko akzio erreibindikatorako arduraduna:.....
- Ikerketa ekonomiko eta industrialetarako I. Teknikoko arduraduna:.....

3.2. Herrialdeko estrukturak

Lehen aurkeztutako Idazkaritza Nazional eta Permanentearen berregokitze planteamenduaren ondoren, garbi dago herrialde mailan zenbait arazo aztertuko direla eragin inzitidua dela eta. Lan honetan, berriaz diogu, ez dira sakonki aztertu nahi herrialdeetarako alternatiba zehatz eta posibleak, baizik eta nazional mailan proiektatu eta homojenezatu beharreko arazo generiko batzu adierazi:

3.2.1. Herrialdeko permanentearak

Herrialdeko Idazkaritza edota herrialdeko konfrentzien eztabaida eta erabaki markoa koartatu edo negatiboki eragin gabe, Permanenteak arduragarrantsuak hartu behar ditu ondorengoetarako: informazioa pasatzea azkartu, Propaganda, Diruzantza, Formazioa, Akzio erreibindikatioa,... bezalako aparatu eta funtzionalitateak finkatu, organizazio arduradunak kontrolatu eta dinamizatu beharreko aktibitate propioen berrikuspen jarraitu batetan herrialde mailan. Hau da, Permanentea herrialdeko Idazkaritzaren exekutibo eta funtzionamendurako parametro klabeetan sindikatuaren aktibitatearen ente dinamizatzaile bilakatu.

Zentzu honetan, eragin berezia hartu behar du Permanenteak bere osotasunean, baina organizazio eta akzio erreibindikatio arduradunek partikularki hauteskunde sindikalen perspektiban sakonki lan egin ete planifikatzeko.

Azken batetan, herrialdeko idazkaritza I.N.aren erritmoan —hiru astero— finkatuta EZTABAIDA, ERABAKI edota APORTAZIO organu modura FINKATUZ, Permanenteak bilera hauek prestaketa egoia, eskualdeetatikako eztabaida eta aportazioak eta aparatu desberdinetatik artikulatzen diren aktibitate edo inintziatiben deskargoa bultzatu behar du. I.N.aren erabateko dependentzia ebitatu behar da eta, maila orokorrean zuzendaritza organu horretan eta nazional maila berdinean aparatu desberdinek marikatutako aktibitate eta urrats homojeneoak jarraituz, herrialde bakoitzean arduragarrantsuak bakoitzetik permanenteara isuriko diren, baloratuko diren eta herrialdeko idazkaritzan planteiatuko diren inintziatiba dinamika bat bultzatu behar da. Bestela, erabateko menperakotze

bat sortzen da —funtzionamendu estankamendu eta bertikalismoak eragiten dituen organu nazional eta bere area edo aparatu desberdinen kapazitate eta posibilitateetan.

3.2.2. Herrialdeko idazkaritza

Herrialde mailako organu goren izaera mantenduko du, interbentzio planak ezarri, inintziatibak onartu eta I.N.ari aportatzeko kapazitatez; I.N.aren funtzionamenduaren bermoldeaketarekin, organu honen nazionalarekiko iritzi gaien aurtengo bultzada H.I. entzako nahiko itigarria izan den praktika baten lasaitasuna ere gertatuko da. Orain garrantzi eta transzendentsia handiagoa hartuko du aportazioan lehentasun eta garrantzi erizpidez banatuko direnez militantzia guztiak aztertu eta eztabaidatu beharreko gaiak eta, azkenean herrialde mailan, Herrialdeko Idazkaritzan. Bide berdinean, Permanenteak dinamizatzaile modura egiten duen lanaren bidez, gero herrialdeko organu exekutiboak funtzionamenduan jarriko dituen aktibitate propioen eragingo duten organizatio, formatio, interbentzio,... mailako arazo propioak aztertu beharko ditu.

3.3. Eskualde-herri estrukturak

Estruktura hauei buruz, "Bilakabide organizatio" lanera eta sindikatuko oinarriko esturturen bultzatze, finkatze eta zabalketan Organizazio Arduradunak jokatu beharreko funtsezko paperera jotzen du. Funtsezko helburua: fabrika eta lan zentruan aktibitate espezifikotatik delegatu eta militanteak atera eta beren lan, ezagutza,... bidea SINDIKATUKO ESTRUKTURETARA PROIEKTATU HERRIALDE BAKOITZETIK INDAR ETA METODOZ HASI BEHARRERKO INTEGRAZIO PLAN PROGRESIBO BATEAN. Delegatuak eta beste zenbait militante habarmenen aportazio posibilitatea ezin da beren fabrika eta delegatu asanblada edo kontzentraziota mugatu; arazo hauei erantzutea garrantzitsua da LAB eta ENAMentzat, baina INOLAZ ERE ez du baldintzatu behar beste exijentzia eta aktibitate horiei PARALELOki bultzatu beharreko indartze organizatio bat.

Beraz, herrialde bakoitzak, permanentea eta herrialdeko idazkaritza, aurre egin beharko dio honi bere espezifikitate eta errealitateetik, BAINA I.N.ak NOSKI, permanentetik bertatik, lan planak eta emaitzak exijitu beharko ditu maiztasun batez erakunde osoa informatzeko.

4. ERREKURTSO EKONOMIKOAK

4.1. Gaur egungo egoera ekonomikoa – Infrastruktura

Diruzantza aparatua emandako dato radiografi-koak erakundearen egoera ekonomikoa argitzen dute, sakontasunez baloratu beharreko indikatzaile batzu adieraziz. 88 eta 89 urteetan pilatutako defizitek —neurri handi batetan fidagarriak diren datuek aurreikusitakoak behintzat— neurri zuzentzaileen, arearen funtzionamenduan disziplina gehiagoren eta gastuen kontrolaren beharra planteiatzen dute, eta honek nahitaez eragingo du alternatibarik gabe sindikatuaren bilakabiderako irtenbide horiek justifikatzen dituzten aurreikusmen, lehenatasunik, ... gabe bidderkatzea ezinezkoa den zabalketa metodoen (liberatuak) orientazioarengan.

Sindikatuaren errekurtsoen ekonomizazio plan bat bultzatzera behartua dago, gaur egun organizazio aparatua eustera zuzendutako giza kapitalaren aktibitate militanteen dimentsionamendu handiagora eta bere maila guztietan, nazionala, herrialdea eta eskualdea, sindikatuaren zuzendaritza organigraman garrantzia duten lan eta funtzionalitateak asumitzeko oportazio militanterako bideak —delegatuak— hobetoago erabiltzera ere.

Zentzu honetan, Batasun Nazional honetan finkatu beharreko kuota igoera beharrez gain, zuzenbide berdinerako neurri zuzentzaileekin batera honen beharra adierazten duten datuen ondoren, gaia sakontasunez eta, batez ere, nazional mailan armonizazio praktikorako erizpidez aztertzen ez badugu LABen etorkizuna "jugulatu" edo baidintzatzten hasten den giza errekurtsoen eta, orokorki, infrastrukturen zabalte bati buruz erreflexionatzen hasi behar du erakundeak.

4.2. Behar berriak – Planifikazioa

Lan honek planteiatzen duen berregokitzeak ez ditu nazional mailan bakarrik sortzen "koste" eta ondorioak, baizik eta indutuzki herrialde edota eskualdetako interbentzio funtzionamendu eta erantzun errealtateak eragiten ditu.

Ohartzen gara berregokitze hau baino lehenagoko behar objektiboak badaudela eta, orain, gehitu egingo direla aipatutako parametroetan zuzendaritza organu nazionalaren indartzeak dakarren aldaketa edo neurrien ondorio zuzen eta zeharkakoen ondorioz, baino honek ezin du "disparatu" azken denboraldian egiten genuen bezalako inertziak liberatueetan oinarrituz "lekuak" betetzeko espiral bat.

Zentzu honetan, beharrezkoa da, inoiz baino gehiago, herrialdekako eta etorkizun perspektibazko errekurtsoen planifikazio bat, beti Idazkaritza Nazionala erabaki "behartu" (positibo denean) edo gaizki interpretatu (ukatua denean) baten aurrean jartzen duten egoera "inmediatista" eta "larri"ekin hautsiz.

I.N.ean zorrotzasunez aurre egin beharreko eta "herrialdekeria" retizentziarik gabeko neurri zehatz

modura, sindikatuaren larrikeria berrikusi eta bilakatu beharreko irtenbide-proposamen modura ondorengoak planteiatzen ditugu:

– LAB, fase honetan —era desberdineko irtenbidedun egoerak gerta badaitezke ere, kasu extremotan eta helburu zehatzen arauera adeudamendura ere iritxi badaiteke ere—, berezko posibilitateen mugan dago erakundearen beste inbertsio partida batzu (mekanizazioa, propaganda, formazioa, nazioartekoak, ... adibidez) baldintzatzten dituzten gastu fijo batzuen aurrean.

Zentzu honetan, era berean, adierazi behar da "liberatuek", beren lana oso garrantzitsua izanik sindikatuaren interbentzio eta aparatua eusteko, ez dutela mamitu, orain arte, LABen zabalketa organizatiborako faktore zuzen modura, salbuespen zehatzak ezik; aspektu hau negatiboki jasaten du sindikatuak bestalde, berriz diogu, erakundearen funtzionalitate eta aurrerakada orokorraren bizkarrezur izan diren liberatu batzuen azken urteotako aktibitatearen balantze modura. Hau da, erakundeko liberatuek lan oso gogor eta funtsezkoa egin dute interbentzio, gatazke, interbentzio espezifiko, aholkularitza, ... arazoaren aurrean LABen finkaketan, baino sindikatuaren ESTRUKTURA ORGANIZATIBOIA, salbuespenak ezik, ez bakarrik ez da zabaldu, baizik eta batzutan liberatuearen berarengan POLARIZATUA geratu da.

Beraz, gure ustez LABek militante liberatu edo dedikazio eksklusibozko talde batengan oinarritu behar du bere aparatua eta interbentzio sindikala, baina, era berean, hau bera bakarrik ez da irtenbide OROKOR bat LABen aurrerakadarako, akats bat delarik zenbait ezegokitate, hutsune eta intsufizientzia errealtate horri begirako erremediorik erraz eta azkarrenaren bidez aurre egitea: liberatu bar lortzea.

– Eskualde-herri marko bakoitzean erakundeak, herrialde bakoitzeko organizazio aurrerakadaren zuzendaritzapean, benetako azterketa bat egin behar du esturktura organizatibo lanetarako ordu sindikalen pilaketa partzialen bidez sindikatuaren aurrerakadarako garrantzi handi eta eragin biderkagarriko lanak benetan asumi ditzaketan enpresa Komite edo Sail Sindikaleko Delegatuak absorbitzeko posibilitateei buruz. Gaur egungo kontextuan, ezin dugu automatikoki planteiatu "liberatu" irtenbidetik, LABek 2.000 Komite delegatu izanik (ehundaka gehiago delegatu sindikal modura) eta eskualde edo herri bakoitzean badaudelarik pilaketa partzialen bidez aktibitate militantea dibertsifikatu daitekeen fabrika edo lan zentruak, fabrikako lana esturktura organizatiboa planifikatuki indartzeko behar larriarekin KONBINATUZ. Hau da, badaude lan zentru batzu Komite eta sail sindikaleko delegatu kopuruaren arauera funtzionalitate banaketa bat egin daitekeenak eta egin behar direnak, honen eraginak posible egingo bait du esturktura organizatiboak militantzia eta bere bilakabide eta efikaziarako lan propioen bilakabidean aberastea.

Planteamendu honek eragina izan behar du, benetako proiektio praktikoz, "bilakabide organizatibo"-rako adierazten ari garan bidean eta sindikal ordezkarietako aurrerakada kuantitatibo era erakundearen estrukturan bilakabidearen ARTEKO OREKA ZUZEN baten garantia modura. Dedikazio errekursoak sail sindikal bakoitzean gelditzea azpierzailpen nabariz, ezin da onartua izan LAB bezalako erakunde iraultzaile batetan, serbitzu eta erreformista sindikalismoari aurre eginez, barne funtzionamendu eta interbentzio sindikalari buruzko balore alternatibodun sindikatu bat eratu nahi duelarik.

Honetan datza, berriz diogu, bilakabide organizatibo baten klabeatariko bat, ez bakarrik errealtate ekonomiko edo faktore ekonomikoek baldintzatua, baizik eta baita ere erakundeak bere baitan dituen giza potentziala estrukturarako kapitalizatzeko metodo ez zuzen batzuek. Arazo hau zehaztasun lurralde praktikoa batetara eramateko garbi dago bide berdineko sentsibilitate bat eta laguntza bat egon behar dela fabrika eta lan zentru bakoitzeko sail sindikalen aldetik estrukturatik orientatzen diren bide eta iniziatibekiko.

– Batasun Nazionalaren ondorengo analisi eta orientabide erreferentzia modura lehengo puntuak edukirik —ponentzia honen eztabaidarekin paraleloki planteatu daitekeena— lurralde estruktura bakoitzetik giza eta material infraestruturara "beharren" PLANIFIKAZIO ZEHATZ bat ikusten dira IRTENBIDE posibleekin. Hau arazo larri bat da funtzionamendu oinarriak jartzeko hauteskunde sindikalei begira eta, noski, 90eko Aurrekontu batzu erizpide zorrotzez eta helburu zehatzeza egiteko, hauek urte bukaera baino lehenago aurkeztu eta onartu behar bait dira.

4.3. Perspektibak – Beste "irtenbide" batzu

Lehen aipatutako puntuak asumitu eta aurrera eramaten badira, LABek nahiko lasai aurre egin diezaike etorkizun gertuari, erakundeari eman beharreko dirulaguntzak baldintzatuzko administrazio desberdinek jarriko dituzten interbentzio posibleak interbentzio.

Nolanahi ere, erakundeak neurriak bultzatu behar ditu hauteskunde sindikalekin eta beste ebento politiko batzuekin (orokorrak, autonomikoak,...) —gastu eta ahalegin polaketa garrantzitsu bat pilatzera behartzen dutenak—, sarrera politiko gogorrago bat gabe "boteila lepo" ekonomiko bat jasan nahi ez badugu.

Horretarako eta erremedio erraz baino nahitaezko bilakatu den kuota igoerarekin bateera, beharrezkoa da zenbait neurri aurre egitea, hauen bilakabide eta azterketa diruzantza batzordean eta sindikatu osoan aztergai izango delarik. Lan honetan bi kuestio adierazten ditugu, hauen plasmazio praktikoa azkar artikulatu beharko delarik B.N. honen ondoren:

– Sarrera eta gastuen mekanizazioa, aurrez afiliatuen kuota guztiak erabat etxekoratu. Honek lehenbaitlehen ordenadore bat eskuratzea suposatuko du —edo orain dagoena martxan jartzea—, arlo des-

berdinetan erabiltzeko datu alimentaziorako prozesu kostoso batekin, ez bakarrik diruzantza arearako, baizik eta akzio errebindikatiboa, propaganda, eta b.era.

– Eskualdeko Idazkaritza bakoitzetik hasi eta sail sindikal bakoitzera arduraren espezifikoz afiliazioaren bilakaera. Benetan kezagarria da afiliazio gehikuntzaren indize laburra LABek 2.000 delegatu dituen Komiteetan eta zenbait ehundaka delegatu sindikal erakundearen zabalte kuantitiboaren benetako motore modura. Afiliazioari ematen diogun garrantzi gutxiegi estrukturatik erantzun eta neutralizatu beharreko arazo bat da, EZ KANPINA ARTIFIZIALEN BIDEZ, baizik eta SENTSIBILIZAZIO ERREAL ETA SAKON baten bidez, honen ondorio izango direlarik sail sindikal eta delegatu desberdinen lanarekiko konpromezu praktikoak eta eragin nabariak. Honekin, inork ez ditzan espresioak negatiboki extrapolatu, ez dugu esan nahi "kantitatea" dela LABen interbentzioaren helburua —garbi dago badaudela Langile Mugimenduan gure papera prioritatzen duten bidearen elementu detrminatzaileak— baina baita eta LAB bezalako erakunde batentzat gure interbentzio errekursoengan eragin zuzena duten eta gure interbentzioaren aurrerakadaren eraginaren islada garbia den afiliatuen PILAKETA bat gutxietsi, baliogabetzea,... erabat kontraproduzitzailea da.

"Independiente", "sinpatizante",... asko definizio eta konpromezu minimo batetara bultzatu behar ditugu —afiliazio bidez eta barne partizipazioko pauso progresiboz hasten da— fabrika marko bakoitzean. Panorama politiko eta sindikala nahiko AGERIAN dago ENAMekin erabat identifikatutako langileek LAB afiliazio markotik kanpora laguntzen jarraitzeko. Langile horiek bultzatu behar ditugu —gure bilakabide beta ENAM eta bere pilaketa bidean dago, LABen aktibitateak berak horretarako eragiten badu ere— amildegia batetara, honek bere identifikazio objektibo eta organizatibotzat LAB izango duen koltxoi bat duelarik.

5. LIBERATUEN FUNTZIONAMENDUA

5.1. Gaur egungo egoera

Errealitate espezifikoa eta sinplifikazioei lotutakoak gehiegi aztertu gabe, gure ustez erakundearen giza zabalketak ez du erakarri lan militanteak positiboki nabarmentzea.

Bestela gertatu da. Konfigurazioak eta bere hurrenez hurreneko funtzioek askotan erreflexio sano eta konpromezu konstruktibozko perspektiba batetan zuzen beharreko "bizio" batzu eragin ditu. Garbi utzi-

rik liberatuek —aurreko atalean adierazitakoekin— sindikatuaren aparatuaren nukleo eta honen bilakabiderako faktore determinatzaile izaten jarraitzen dutela, beharrezkoa da azken denboraldian adierazten diren proiektzio horiek adieraztea:

– “Kunplimendu” sindromea. Liberatu bakoitzaren lanen gehiegiko autokontrol bat dago, erakunde guztiari interesatuz, printzipioz bere ardurako materia explizito ez diren arazo eta fazetei buruzko dinamika ireki eta aportatzaile bat ez dagoelarik. Honek sindikatuaren organigramaren bi aldeekiko eragin bat du: goruntz (herrialdeko edo nazional estrukturalak) eta beheruntz (sindikatuaren lanaren oinarria). Dinamika aportatzailegoekin eta, bereziki, bere eraginaren ondorioa batere konstruktiboa ez den delegazionismo batetan gertatzen den “aardura eksklusibo” markoetan enkistatu gabeko dinamikekin aurre egin beharreko “funtzionarizaketa” baten arriskua, beraz.

– Arrazoi desberdinen ondorioz (objetoak eta subjetoak) sindikatuak jasan dituen etapa zailak deskonfidantza kantzera bat izan dira, honen eragina estruktura eta aktibitateen estankamendu eta burokratizazio bat delarik.

– Sindikatuan bakoitzak daraman momentu edo bibentzien arauera erlajamendu “pertsonalak”, azken urteotako erakundearen bilakabidean sentsazio kronikoen intzentibazio baten fruitu modura.

– Aktibitate militantearen graduak galtzea, lehenengo puntuan adierazitakoaren bidean fabrika edo lan zentru eratarako aktibitateetarako “moldeaketa” bat jasanaz liberatuak.

– Aktuazio militantearen arlo guztietan postulatutako teorikoak praktika benetan iraultzaile batekin konpatibilizatzeko 10eko militantzia batentzako prozesuak esaktzen dituen konportamendu militanteekiko liberatu eta militantzia arteko sintonizazio ez zuzena, orokorki.

Berriz ere matizatu behar da, ikuspegi kritiko eta orokortzailegirik ez aurkeztearren, liberatuek funtsezko lann eta garrantzi posizio bat mantentzen jarraitzen dutela orokorki erakundearen, lehen aipatutako desbarreak desbarre. Gainera, kuestio zehatz hauek ez dira liberatu guztiekiko generikoak, baina alternatiboki ematen dira eta konposatzaile guztien etapen arauera, salbuespenak ezik. Nolanahi ere, militante “punch”aren BENETAKO galera sentsazio bat dago —bai eta liberatuek konpatibilizatu behar dituzten oinarritzko aktibitateetatik urruntzeaz ere— funtzio “hestu” eta “enpresa” mailan eskematizatutako karakterizazio baten kaltetan.

Erakundearen bilakaera bere arazoekin —objetoak eta subjetoak—, militantzia urteek sortutako “roze” lojikoak, hauen eraginak, batzutan, “nekea” edo edozein erakunderekin bat datozen arazo subjektibo horien eraginak sortutako militanteen arteko urrutiratzea direlarik, militantzia ohitura klasikoarengan sistemak egiten dituen absortzioak (aisiaren garrantzia, metodoak,...),... sindikatuko liberatuen lan eta funtzioen ERABILERA APORTATZAILE EZ ZU-

ZEN batengan nolabait eragin duten kuestioak dira.

5.2. Liberatuaren karakterizazioa

Puntu hoentan azpimarratu behar da okerrik ez gertatzeko LABeko liberatuak sindikaturako dedikazio eksklusiboa duten erakundeko militanteak direla —kontraprestazio ekonomikoz—, dagozkien zuzendaritza esturturen erabakiei lotuak. Hau da, LABeko esturturek dira inolako kontraprestaziorik gabe (egindako kotizazioen ondorioak ezik) liberatu batek erakundearen jarraitzen duen edo ez erabakitzen dutenak emandako funtzioetarako militantearen aktibitate, kapazitate,... balorazioen arauera.

Beraz, LAB ez da langileak mugagabeko kontratu baten funtzioaren ardura eta lan desberdinak bete ditzaken enpresa konbentzional bat. Hau da, edozein liberatu esturturen menpe dago bere jarraipen eta funtzio erabakiei buruz, erakundearen mesederako ezagutza, kapazitate,... buruz bilakatzeko beharra edukiz, sindikatuak —marko bakoitzeko zuzendaritza esturturek— funtzio eta burokratismoari buruzko estankamendu, geldietatik ihes egin behar bait du.

Hau praktikan asumitu eta aurrera eraman behar da suposatzen dituen kosteak koste, honela gertatzen ez bada kaltetua erakundea bera izango bait da.

Erreferentzia honekin ez dugu esan nahi gaur egun honelako errealitatek dagoenik —lehenengo atalean aipatutako planifikazioan aztertu beharreko arazoa—, baizik eta garbi utzi erakundeko liberatuarekiko balorazio eta aktuazio praktikorako filosofia zein izan behar duen.

5.3. Funtzionamendua – Arauak

Aipatutako komentario eta karakterizazioaren ondoren, hauek betetzea erakunde guztian armonikoki artikulatu behar den arau batzuek adierazten ditugu, ez “arautegi” huts baten ondorio modura bakarrik, baizik eta honen eraginak bai individual mailan eta bai, sindikatu mailan, kolektiboki izango dituen hobekuntza eta sakonketaren konbikzioaren ondorioz.

Funtzionamendu “arau” edo orientabide hauez gain, funtsezkoa da liberatuen aktibitate lanari buruzko sentimendu korporatibistak KANPORATZEA eta lanen bilakabidearen edonolako roze edo urruntzeak piskanak leuntzeko lan egitea. Honi buruzko edozein bilakabide negatibok konportamendu edo egoera hori deuseztatzeko beharrezko neurriak aurre egiteko limitean jarriko luke sindikatua.

Noski beti egongo direla esturturea eta ardura desberdinek bizio edo funtzionamendu oker edo nahiko ez direnei aurre egin ahal izateko EGOERA TENSIONATU eta minimo batzuek planteatzea nahi duten maila normatibo behartu batzutan “tolerantzia” graduak.

Erreferentzia orokor honetatik eta erakundearen aurrerakada homojeneorako oinarri modura zentzu konstruktiboan, positiboan, partizipatiboan,... I.N.ak eragin nahi duen izpiritu batetatik, liberatuek bete beharreko konportamendu militante minimo batzuek

aipatu:

5.3.1. Liberatu "administratiboak"

Lehenik eta behin, "administratibo" tipikazioa ez da, inola ere, egokiena, garbi badago ere bere funtzio espezifikoak —erabat nahitaezkoak— bide horretan karakterizatzen direla. Liberatu hauei dagokienez, bi gauza zehaztu behar dira dagokion zuzendaritza organuak ezartzen dituen beste lan erantsi edo zehazteaz gain:

a) Presentzia ordutegiak zorrotzak izan behar dute, parte hartzen duten lurralde markoko bilerak ezin, ez bait daude beste inolako bilera, bidai, gestio, etab. etara lotuak, erakundeko gainontzeko liberatuak bezala. Beren funtzioek beraiek (telefonoa, abisuak, koordinazioa,...) sindikatuko herrialdeko sede guztietan presentzia minimorako zorrotasun hau exijitzen dute. Maila honetan, ordutegiak 9,30tatik 13ak arte eta 15,30tatik 19,30ak arte izango lirateke.

b) LABeko liberatu bati militantzia zentzua eman-gio dioten informazio, eztabaida, konformazio ideologiko,... elementuekin erakundearen bizitzan parte hartze-ko herrialde edo eskualdeko esturturetakoa izan.

5.3.2. Liberatu teknikoak eta organizazioa orokorki

Liberatu hauei buruz, funtzionamendu minimorako kuestio batzu planteiatu:

a) Guztiek izan, lan egin eta parte hartu behar dute erakundeko esturturetan, bere lan zehaztetik aparte, faktore determinatzaile bat izango delarik sindikatuaren interbentziorako expreski definitutako esturtureta territorial edo sektorial horietara ez joatea.

b) Militantzia ordutegia ezin du sedean presentzia fisikorako orduetara lotua egin, baina flexibilitate irekizko erizpide bat mantendu behar di disposizio militanteak gehiago eskatzen duela diruditen dinamiketara ez "ohitzeko". Gutxienez liberatu "administratibo"entzako adierazitako "minimo" dedikazioa asumitu behar du.

c) Liberatu tekniko edo organizatiboek beti esan-gio diote organizazio arduradun edo liberatu "administratibo"ari sedetik kanpoko aktibitatearik dagoen non dagoen, honela alde batetara utziz erakundearen aparatuko funtzioak koordinatu eta elkarrerlazonatzeko deskonexio eta anarkia sentazioak.

5.3.3. Liberatu plenoa

Urtero, esperientziak elkarraldatu, lan ereduak eredutu eta esturtureta desberdinei ondorio batzu emateko, sindikatuko liberatu guztien Plenoa bilduko da, ez bakarrik problematikak aztertze-ko mekanismo modura, baizik eta baita ere erakundeko militantzia liberatuaren elkarraldaketa eta batabestearen ezagutzarako mekanismo modura. Gaur egun, eztabaidarako marko nazional eta bat datozen esturturetan ezik, sindikatuko liberatuak ez dute elkar ezagutu ere egiten batzutan, eta gure ustez hau ez da positiboa esturturekiko esperientzia kontraste eta elkarraldaketa honetan aurrera egiteko. Plenario hau I.N.ak

deituko luke eta tratamendurako erizpide eta gaiak ezarri-ko dituen permanente nazionalak lehendakari-tzatuz.

5.3.4. Oporrak

Herrialde bakoitzeko organizazio arduradunak eta Idazkaritza Nazionalak dagozkien opor egutegiak planifikatuko dituzte, honek urte bakoitzerako behar eta preferentzia edo lehentasun ordena jasoko duela-rik, sindikatuaren aktibitateen kaltetako anarkia edo jarrera "indibidualistak" alde batetara utziz.

Prozedimendu hau 90 urtean hasiko da, Maiatzaren 31.a baino lehenago planing zehatz bat zehaztuta egon beharko duela-rik. Planing hori egitean oinarri-ko kontsiderazio batetatik abiatuko gara: sindikatua ez da "isten" Abuztuan, bere aktibitatea asko gutxitzen bada ere.

IDAZKARITZA NAZIONALA
Euskadi, 1.989ko Uztaila.

